LITERAKTUM

# LITERAKTUM

2021

Hitzen hiria

La ciudad de las palabras

**Azaroa** / Noviembre

08-21

www.literaktum.eus

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostia kultura

**PROGRAMA OROKORRA** / PROGRAMA GENERAL
6 - 25

**JARDUERA BEREZIAK** / ACTIVIDADES ESPECIALES
26 - 43

**ERAKUSKETAK** / EXPOSICIONES
44 - 51

**LITERAKTUM TXIKIA**
52 - 61

# LITERAKTUM 21

## **Literatura eta memoria**
## Literatura y memoria

Bidea abiatu zuenetik, literatura eta gizartearen arteko konexioak arakatzea izan da Literaktumen helburuetako bat. Baita literatur sorkuntzaren alderdi ezberdinetan murgiltzea ere. Ildo beretik ekingo dio aurten ere jaialdiak eta gizartean azken urtetan darabilkigun gaia ekarriko du Literaktumeko plazara: memoria. Literatura eta memoria.

Literaturaren arloan, iragana gogorarazten duten forma literarioekin lotzen da memoria maiz, orainera eta etorkizunera zabalduz; nobela, antzerkia, poesia historikoa, biografia eta autobiografia. Gizakiok gogoratzen duguna gara, memoria gara. Eta memoria da hain zuzen, literatur sorkuntzaren oinarrizko osagaietako bat eta horien artean, garrantzitsuena. Sortzailea bizi, sentitu eta irakurri izandakoaz hornitzen da istorio berriak sortzeko. Elementu autobiografikoez betetako istorioak asmatzen ditu. Ez dago memoriarik ordea, bere antagonista edo aurkakoa den ahanztura gabe, horrek emango bait dio bide, imaginazioari, sorkuntzari. Memoria, ahanztura eta imaginazioaren artean bizi da literatura.

Desde que iniciara su andadura, uno de los objetivos de Literaktum ha sido el de explorar las conexiones entre literatura y sociedad, así como adentrarse en los diferentes aspectos de la creación literaria. En esta misma línea, el festival vuelve a poner este año el punto de atención en un tema que como sociedad nos ocupa en sus distintos aspectos desde hace tiempo: la memoria. Literatura y memoria.

En el ámbito literario, la memoria se relaciona frecuentemente con formas literarias que evocan el pasado, abriéndolo al presente y al futuro; novela, teatro, poesía histórica, biografía y autobiografía. Las personas somos lo que recordamos, somos memoria. Y es precisamente la memoria uno de los elementos básicos de la creación literaria y, entre ellos, el más importante. Los escritores y escritoras se nutren de lo vivido, de lo sentido y de lo leído para crear nuevas historias. Crean historias inventadas que se alimentan de elementos autobiográficos. Pero no hay memoria, sin su antagonista o contrario, el olvido. El olvido da paso a la imaginación, a la creación. La literatura vive en definitiva, entre la memoria, el olvido y la imaginación.

Gai honen inguruan, nazioarteko literaturaren izen esanguratsuak biltzeko ahalegin berezia egin du aurten Literaktumek. Hainbatetan Literatura Nobel sarirako izendatu duten David Grossman israeldarra, 2016ko Goncourt sariaren irabazlea, Leila Slimani, edota *Ciudad sumergida* eleberrian aitaren istorio ezkutuaren berri ematen digun Marta Barone gaztea izango dira literatur jaialdian. Baita, haurtzaroan kolonizazio garaian Maputon bizi izandakoa bildu duen Isabela Figueiredo eta *En tiempos de contagio* entseguan pandemiaren inguruko hausnarketa egin duen Paolo Giordano italiarra ere.

Beren azken lanen berri emango digute, memoria ezin hobe lantzen duen idazle batek, Luis Landerok, familiaren historia gorabeheratsua bildu duen Borja Ortíz de Gondrak, Kataluniako gertuko historian murgildu den Jordi Amatek edo Sira, azken nobelaren protagonista berreskuratu duen María Dueñasek. Literaktumen izango dira baita ere Edurne Portela, Javier Cercas, María Belmonte eta Manuel Jabois.

En torno a este tema, Literaktum ha realizado este año un especial esfuerzo por atraer a nombres significativos de la literatura internacional. El israelí David Grossman, varias veces nominado al Nobel de Literatura, la ganadora del Premio Goncourt 2016, Leila Slimani, o la joven Marta Barone que nos cuenta la historia oculta de su padre en su primera novela *Ciudad sumergida*, estarán en el festival literario, así como Isabela Figueiredo, que recopila en sus memorias lo vivido de niña en Maputo durante la colonización, y el italiano Paolo Giordano, con sus reflexiones sobre la pandemia en el ensayo *En tiempos de contagio.*

Conversaremos sobre sus últimos trabajos con uno de los escritores que mejor partido le ha sacado a la memoria, Luis Landero, con Borja Ortíz de Gondra que ha recopilado la convulsa historia familiar, con Jordi Amat que se ha sumergido en la historia cercana de Catalunya y también con María Dueñas. Estarán así mismo en Literaktum Edurne Portela, Javier Cercas, María Belmonte y Manuel Jabois.

Labetik atera gabeko sorkuntzez ere hitz egingo dugu Eider Rodriguez eta Kirmen Uriberekin eta duela 100 urte sortu zen Martin Ugalde, XX. mendearen bigarren erdialdeko euskal kulturaren arloko figura garrantzitsuenetakoa gogoratuko dugu Anjel Lertxundiren ahotan. Aurelia Arkotxak eta Jean Dèsyk, idazle quebectarrak, akulturazioa, kolonialismoa eta kultur aniztasunaz diotena entzungo dugu Etxepare Institutuaren eskutik.

Eta izango dira diziplina arteko beste proposamen batzuk ere, literatura beste hizkuntza batzuekin elkartuko den unea; hala nola, *Unisonoa-n*, Irati Jimenezen *Euskal literaturaren historia sobrenatural bat* saioan eta *Los hermanos Machado* antzezlanean.

Luis Buñuelen gaineko Harkaitz Canoren azken lanak, biografia eta karigrafia ikastaroek, irrati tailer batek, erakusketek, Lauki Makala instalazioak eta Literaktum Txikiak, urtez urte hazten doan haurrentzako jarduera-programak ere, osatzen dute literatura hiri osora zabalduko duen jaialdiaren programa.

Tendremos novelas que todavía no han salido al mercado, la de Eider Rodríguez y la de Kirmen Uribe y recordaremos con Anjel Lertxundi a una de las figuras más importantes de la cultura vasca de la segunda mitad del siglo XX, que nació hace ahora 100 años, el periodista y escritor, Martin Ugalde. Aurelia Arkotxa y el escritor quebequés Jean Dèsy por su parte, conversarán sobre aculturización, colonialismo y diversidad cultural de la mano del Instituto Etxepare.

Habrá otras propuestas interdisciplinares, momentos en los que la literatura se juntará con otros lenguajes artísticos como en *Unisonoa, Euskal literaturaren historia sobrenatural bate* con Irati Jimenez o la obra teatral *Los hermanos Machado* de Teatro del Temple.

El último trabajo de Harkaitz Cano sobre Luis Buñuel, los cursos de biografía y carigrafía, un taller de radio, exposiciones, la instalación Lauki Makala y Literaktum Txikia, un programa de actividades infantiles que crece año tras año, completan el programa de Literaktum, un festival en red que extenderá la literatura a toda la ciudad.



# **Programa orokorra**
# Programa general

**08**

# ***El huerto de Emerson***

***Luis Landero***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Karmele Jaio***

**ERNEST LLUCH K.E.**
**Areto Nagusia** / Sala principal
**19:00 ES**

Luis Landero espainiar literaturaren idazle fin eta sakonenetakoa da 1989an *Juegos de la edad tardía* (Literatura Sari Nazionala) maisulana publikatu zuenetik. Ordutik, Landerok ibilbide sendo eta arrakastatsua gauzatu du *El mágico aprendiz, El guitarrista, Absolución, El balcón en invierno* edo *Lluvia fina* liburuekin, besteren artean. Landeroren literaturan memoriak protagonismo berezia du, eta hala gertatzen da nabarmenki bere azken liburuan, *El huerto de Emerson*. Autobiografia, nobela eta saiakeraren artean dagoen lan bikain berrian bere haurtzaroa eta gaztaroa jorratzen ditu, literatur hausnarketa ezberdinekin batera.

Landero literatura eta memoriari buruz arituko da solasean Karmele Jaio idazlearekin.

Desde la publicación en 1989 de la obra maestra *Juegos de la edad tardía* (Premio Nacional de Literatura), Luis Landero es uno de los autores esenciales de la narrativa española. Desde entonces, ha construido una trayectoria sólida y exitosa con libros como *El mágico aprendiz, El guitarrista, Absolución, El balcón en invierno* o *Lluvia fina*, entre otros. La memoria tiene una importancia capital en la literatura de Landero, como vuelve a quedar patente con *El huerto de Emerson*, una obra que conjuga la autobiografía, la novela y el ensayo, en la que rememora su infancia y juventud al tiempo que se detiene en diversas reflexiones literarias.

Landero conversará sobre esta relación de literatura y memoria con la escritora Karmele Jaio.

***Gonbidapena beharrezkoa. Ekitaldia baino 3 egun lehenago eska daitezke (gehienez 2)** / *Invitación necesaria. Se podrán solicitar 3 días antes del evento (máximo 2)*

*amarakulturetxea@donostia.eus*

*© Itziar Guzmán*







## 08

**HITZALDIA**
CONFERENCIA

# *Martin Ugalde: Exilioak eta hizkuntzak, ahulenak gogoan*

***Anjel Lertxundi***

Aurkezlea / Presenta
***Oihana Iguaran***

**SAN JERÓNIMO ARETOA**
**Liburutegi Nagusia** / Biblioteca Central
**19:00 EU**

**Ekitaldia zuzenean jarraitu ahal izango da www. literaktum.eus webgunean / Este evento podrá ser seguido en directo en la pagina web www.literaktum.eus*

100 urte beteko dira azaroaren 11n, Literaktumekin bat eginez, Martin Ugalde jaio zela eta mendeurren hori ospatzen ari da aurten. Urria eta azaroa bitartean izan dira ekitaldi nagusienak eta horren baitan Martin Ugalde eta haren ekarpena aztertzea helburu duen hitzaldi zikloa antolatu da. Azken hitzaldia Literaktum jaialdiaren barruan antolatu da. Anjel Lertxundik Martin Ugalderen ekarpen literarioa aletuko digu, haren testuinguruan kokatuta. Literatura, exilioa, emigrazioa, hizkuntza izango ditu ardatz Lertxundiren hitzaldiak.



El 11 de noviembre, coincidiendo con Literaktum, se cumplen 100 años del nacimiento de Martin Ugalde. Entre octubre y noviembre se han celebrado los principales actos para recordarle y se ha organizado un ciclo de conferencias que tiene como objetivo analizar su figura y su aportación. La última conferencia de este ciclo tendrá lugar en el marco del festival Literaktum. El escritor Anjel Lertxundi desgranará la aportación literaria de Martin Ugalde en su contexto. La charla se centrará en la literatura, el exilio, la emigración, el idioma.

**Edukiera bete arte / Hasta completar aforo*

Antolatzaileak / Organizan
***Martin Ugalde Kultur Parkea***
***Donostia Kultura***

**09**

## *Sira*

***María Dueñas***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Eva Monente***

**TOMASENE K.E**
**Areto Nagusia** / Sala principal
**19:00 ES**

María Dueñasek *El tiempo entre costuras* izan zuen argitaratutako lehen eleberria eta baita salmenta arrakasta itzela lortu ere. Hamabi urte geroago, lan hartako protagonista berreskuratu du María Dueñasek bere azken nobelan: Sira. Helduagoa, argiagoa eta zuhurragoa da oraingo Sira Quiroga eta Bigarren Mundu Gerraren garaian Jerusalem, Londres, Madril eta Tangerren ibiliko da espioi lanetan dabilen jostuna.

María Dueñasek Eva Monente kazetaria izango du solaskide azken lana aurkezteko.

Doce años después de *El tiempo entre costuras*, su primera novela y éxito de ventas, María Dueñas recupera a la protagonista, Sira Quiroga. Más madura, lúcida y perspicaz, la costurera en tareas de espía inicia una travesía que le lleva por Jerusalén, Madrid, Londres y Tánger, durante el difícil período de la Segunda Guerra Mundial.

María Dueñas conversará sobre su último trabajo *Sira* con la periodista Eva Monente.

***Edukiera bete arte** / *Hasta completar aforo*



**09**

## *En tierra de Dioniso, la memoria de los lugares*

***María Belmonte***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
*Antonio Casado*

SAN TELMO MUSEOA
**19:00 ES**

María Belmontek Greziako iparraldean, Mazedonia birsortzen du *En tierra de Dioniso* azken lanean. Lurralde malenkoniatsu eta misteriotsu bat bezala azaltzen digu, baina baita oparoa eta txoko liluragarriz betea ere. Historiaren, bidaien, antropologiaren eta literaturaren arteko kontakizuna da, irudiak, oroitzapenak, irakurketak, elezaharrak eta pertsonaiak biltzearen poderioz sortua. Ekialdearen eta Mendebaldearen elkargune izan den eta izaten jarraitzen duen eskualde baten aberastasuna aitortzen dio Belmontek Mazedoniari.

Antonio Casadok gidatutako saioan, azken lanaren nondik norakoak azalduko dizkigu egileak.

María Belmonte concibe y recrea Macedonia, en el norte de Grecia. De su mano se nos va revelando como una tierra melancólica y misteriosa y sin embargo exuberante y llena de rincones capaces de deparar momentos de auténtica exultación. El resultado es un relato, a caballo entre la historia, los viajes, la antropología y la literatura, urdido a fuerza de convocar imágenes, recuerdos, lecturas, leyendas y personajes, para hacer justicia a la riqueza de una región que ha sido y sigue siendo, ni más ni menos, el punto de encuentro de dos mundos, Oriente y Occidente.

La autora nos presentará su último trabajo en un encuentro dirigido por Antonio Casado.

**Edukiera bete arte / Hasta completar aforo*

*www.santelmomuseoa.eus*



**10**

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

## *Kandelikara - Buñueli buruzko film baterako apunteak*

***Harkaitz Cano***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Iratxe Fresneda***

**TABAKALERA**
**1 zinema aretoa** / Sala de cine 1

**18:00 EU**

Literaturaren alde jostarienetik zinemari egindako omenaldi bihurri hau, Luis Buñuelen eta beste artista askoren testu, film, elkarrizketa zati, poema, *off*eko ahots eta bestelakoen *remake* bat da. Tarteka, egileak asmatutakoak ere badira. Inoiz edo behin, Buñuelekin zerikusirik ez duen jendeak parte hartuko du: adibidez, aseguru-saltzaile armeniar batek. Badelako modu bat saiakera fikzio bihurtzeko: aski da kandela baten argitan irakurtzea, liburuak esku artean su hartzen dizun bitartean.

Donostia Kulturak eta Euskadiko Filmategiak argitaratzen duten Nosferatu bildumaren IX. alea da Harkaitz Canoren *Kandelikara - Buñueli buruzko film baterako apunteak* lana. Iratxe Fresnedarekin solasean, lanaren nondik norakoak azalduko ditu egileak.

Este sinuoso homenaje al cine desde el lado más juguetón de la literatura, es un *remake* de textos, películas, fragmentos de entrevistas, poemas, voces en *off* de Luis Buñuel y otros muchos artistas. Algunos, también son inventados por el autor. En alguna ocasión participa gente ajena a Buñuel: por ejemplo, un vendedor de seguros armenio. Porque hay una manera de convertir el ensayo en ficción: basta leer a la luz de una vela mientras el libro te arde entre las manos.

*Kandelikara - Buñueli buruzko film baterako apunteak* de Harkaitz Cano es el volumen número IX de *Nosferatu bilduma* editada por Donostia Kultura y Filmoteca Vasca. Harkaitz Cano presentará su trabajo en conversación con Iratxe Fresneda.

Antolatzaileak / Organizan
***Euskadiko Filmategia, Donostia Kultura***

***Gonbidapenak Tabakalerako informazio gunean eta www.tabakalera.eus-en** / *Invitaciones en el punto de información de Tabakalera y en www.tabakalera.eus*

*© Oier Aranzabal*



**10**

## *Belle de Jour (1967)*

***Luis Buñuel***

TABAKALERA
**1 zinema aretoa** / Sala de cine 1

**19:30 FR** 101 min.

Sarrera / Entrada: 3,5€

Jatorrizko bertsioa frantsesez, euskarazko azpitituluekin / Versión original en francés, con subtítulos en euskera

Sévérinek, zirujau erakargarri batekin ezkondutako gazteak, eguneko prostituzioa ezagutuko du. Jakin-minak bultzatuta, Anaïsen prostituzio etxean lanean hasi eta bizitza bikoitza izatera ohituko da. Marcel, berarekin maiteminduko den gaizkilea agertzean protagonistaren bizitza zailduko da.

Sévérine, una joven casada con un atractivo cirujano, descubre la existencia de la prostitución diurna. Impulsada por la curiosidad, ingresa en la casa de citas de Anaïs y termina acostumbrándose a llevar una doble vida. La aparición de Marcel, un delincuente que se enamora de ella, complicará la situación de la protagonista.

Antolatzaileak / Organizan
***Euskadiko Filmategia, Donostia Kultura***

**Sarrerak salgai Tabakaleran eta www.tabakalera.eus -en* / *Entradas a la venta en Tabakalera y www.tabakalera.eus*

**10**

## *Ciudad sumergida*

***Marta Barone***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Arantxa Urretabizkaia***

OKENDO K.E.
**Areto Nagusia** / Sala principal
**19:00 IT + EU + ES**

Itzulpena euskara eta gaztelaniara
Traducción a euskera y castellano

Zer dakigu gu jaio aurretik gurasoek zuten bizitzaz? *Ciudad sumergida* eleberria Marta Baroneren debuta da helduentzako literaturan. Baronek talde armatuko kide izateagatik inputatua izan zen bere aitaren ezkutuko istorioan murgiltzen gaitu; familia -memoria, literaturari begirada sutsua eta Italiako pasarte bortitzenetako baten erretratua. Auto fikziozko literatura eta kazetaritza zorrotza batzen dituen lan honek, Vittorini saria irabazi du eta Strega sarirako ere izendatu dute.

*© Georgette Pavanati*



¿Qué sabemos de la vida de nuestros padres antes de que naciéramos? *Ciudad sumergida* es el debut de Marta Barone en el panorama literario para adultos. Una novela en la que nos adentra en la historia oculta de su propio padre, imputado por pertenencia a banda armada; una memoria familiar, una apasionada mirada a la literatura y el retrato de uno de los episodios más violentos de Italia. Galardonada con el Premio Vittorini, nominada al Premio Strega, aúna la literatura de auto ficción y el periodismo minucioso y de largo aliento.

**Gonbidapena beharrezkoa. Ekitaldia baino 3 egun lehenago eska daitezke (gehienez 2) / Invitación necesaria. Se podrán solicitar 3 días antes del evento (máximo 2)*

*okendokulturetxea@donostia.eus*

**11**

## *El hijo del chófer*

***Jordi Amat***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Iban Zaldua***

**KUTXA KULTUR PLAZA - TABAKALERA**
**19:00 ES**



Jordi Amat Kataluniako egungo komentarista politiko nagusienetako bat da eta XX. mendea Katalunian ulertzeko funtsezko lanen egilea. Alfons Quintà (1943-2016) kazetari eta abokatuaren ibilbidea berreraiki du *El hijo del chófer* azken lanean, setioa, boterea, dirua eta eragimen-trafikoa uztartuz. Kataluniako historia politikoaren erradiografia da, thriller gisa irakurtzen den kazetaritza, xantaia eta ustelkeria istorioa. "Kataluniar oasiaren" mitoa hausten du Amatek *El hijo del chófer*-en.

Jordi Amatek Iban Zaldua idazlearekin hitz egingo du bere azken lanaz.

Jordi Amat uno de los principales comentaristas políticos de la actualidad catalana y autor de obras fundamentales para entender el siglo XX en Cataluña, publica *El hijo del chófer*. Reconstruye la trayectoria del periodista y abogado Alfons Quintà (1943-2016) donde refleja una encrucijada de asedio y poder, dinero y tráfico de influencias. Una radiografía de la historia política catalana, una historia de periodismo, chantaje y corrupción que se lee como un thriller. El extendido mito del "oasis catalán" cae hecho pedazos en las páginas de *El hijo del chófer*.

Jordi Amat conversará con el también escritor Iban Zaldua sobre su último trabajo.

Antolatzaileak / Organizan
***Kutxa Kultur, Donostia Kultura***

**Edukiera bete arte / Hasta completar aforo*

**11**

# *En tiempos de contagio*

***Paolo Giordano***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Begoña Zubieta***

KOLDO MITXELENA KULTURUNEA
**19:00 IT +EU + ES**

Itzulpena euskara eta gaztelaniara
Traducción a euskera y castellano

Paolo Giordano idazle italiarrak, Strega Sariaren irabazle gazteenak, koronabirusari buruzko lehen saiakera argitaratu du, *En tiempos de contagio*. Fisika ikasitakoa, *La soledad de los números primos* arrakastatsuaren egileak bizipen, gogoeta eta ohartarazpen sorta bat planteatuz aurrera egitera eta etorkizun desberdin baten oinarriak ezartzera bultzatzen gaitu. "Egiten ez badugu, larrialdiaren amaieran, egoera lehengo bera izatea da arriskua, arazo berberekin, eta hurrengo izurritea inkubatuko dugu berriro". Gure erantzukizun kolektiboari buruz hausnartzeko gonbidapena eta nazioarteko lankidetzarako deia da *En tiempos de contagio*.

El escritor italiano Paolo Giordano, el ganador más joven del Premio Strega, escribe el primer ensayo sobre el coronavirus, *En tiempos de contagio*. Físico de formación, el autor del exitoso *La soledad de los números primos* plantea un compendio de vivencias, reflexiones y advertencias, y nos conmina a resistir y a sentar las bases de un futuro diferente, porque "el riesgo, si no lo hacemos, es que al final de la emergencia todo volverá a ser lo mismo que antes, con los mismos problemas, y volveremos a incubar la próxima epidemia". *En tiempos de contagio* es una invitación a reflexionar sobre nuestra responsabilidad colectiva y una llamada a la cooperación internacional.

Antolatzaileak / Organizan
***Koldo Mitxelena Kulturunea***
***Donostia Kultura***

**Edukiera bete arte / Hasta completar aforo*



*© Daniel Mordzinski*

**12**

# *Los ojos cerrados*

***Edurne Portela***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Mariasun Landa***

**OKENDO K.E.**
**Areto Nagusia** / Sala principal
**19:00 ES**

*Los ojos cerrados* leku bakarreko eleberria da, edozein izen izan zezakeen herria, eta horregatik Pueblo Chico jarri dio egileak. Ikuspegi ezberdinetatik eta hainbat ahotsekin, Edurne Portelaren azken eleberriak memoriari bizkarra ematen dion Espainiaren amildegian kokatzen gaitu. Ez da Espainiako gerra zibilari buruzko eleberria, ondorengo ustezko bake garaian izandako indarkeriaren jarraipenari buruzkoa baizik. Iraganaren eta orainaren arteko topaketan, Portelak pertsonaien bizitza betirako nahastuko duen indarkeria aztertzen du. Indarkeria horrek elkarbizitzarako eta elkartasunerako espazio bat sortzeko aukera ematen die herritarrei.

*Los ojos cerrados* es una novela de un solo lugar, un pueblo que podría tener cualquier nombre y por eso se llama Pueblo Chico. Desde distintas perspectivas y con diferentes voces, la última novela de Edurne Portela, nos sitúa ante el abismo de la España que da la espalda a la memoria. No se trata de una novela sobre la guerra civil española, sino sobre la continuidad de la violencia en tiempos de una supuesta paz. El encuentro entre el pasado y el presente, da pie a una novela en la que la autora indaga sobre una violencia que si bien trastoca para siempre la vida de los personajes, genera la posibilidad de crear un espacio de convivencia y solidaridad.

**Edukiera bete arte* / *Hasta completar aforo*



**12**

**EZTABAIDAK**
DEBATES

## ***Akulturazioa, kolonialismoa eta kultur aniztasuna***

*Aculturación, colonialismo y diversidad cultural*

***Jean Dèsy & Aurelia Arkotxa***

Moderatzailea / Modera
***Aiora Jaka***

**RUIZ BALERDI ARETOA - TABAKALERA**
**19:00  FR + EU**

Itzulpena euskarara
Traducción a euskera

Aurelia Arkotxa euskal idazleak eta Jean Dèsy idazle quebectarrak Txekhov vs Shakespeare izeneko ekimenean hartu dute parte *Korrespondentziak* liburuarekin, Saison Québec-Pays Basque 2020-2021 egitasmoaren baitan, Etxepare Euskal Institutuak sustatuta. Tarte horretan hamabi gutun elkar trukatu dituzte, akulturazioa, kolonialismoa eta kultur aniztasuna hizpide hartuta. Solasaldi honetan gai horien inguruan bi idazleek duten ikuspegia ezagutu ahal izango dugu.

La escritora vasca Aurelia Arkotxa y el escritor quebequés Jean Dèsy participan con *Correspondiencias* en la iniciativa Chejov vs Shakespeare, dentro del programa Saison Québec-Pays Basque 2020-2021, impulsado por el Instituto Vasco Etxepare. A lo largo de este periodo han intercambiado doce cartas y en ellas reflexionan sobre la aculturación, el colonialismo y la diversidad cultural. En esta tertulia podremos conocer el punto de vista de ambos sobre esos temas.

Antolatzaileak / Organizan
***Etxepare Institutua, Donostia Kultura***

**Edukiera bete arte* / *Hasta completar aforo*



**13**

# *El país de los otros*

***Leila Slimani***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***María Pilar Rodríguez***

**AIETE K.E.**
**Areto Nagusia** / Sala principal
**18:30 FR + EU + ES**

Itzulpena euskara eta gaztelaniara
Traducción a euskera y castellano

*Canción dulce* eleberriarekin 2016an Goncourt saria irabazi eta ondorengo lanek Frantziako letren lehen mailan kokatu dute Leila Slimani frankomarokoarra. *El país de los otros* 50eko hamarkadan Marokon hasten den trilogia baten lehen liburua da. Aro koloniala gainditu eta estatu independientea eraikitzeko bidean dagoen lurraldera migratutako amonaren historiaren berri ematen du Slimanik. Istorio pertsonala eta intimoa baina politikoa eta historikoa era berean, non egileak, beti besteena den herrialde batean bizi izanaren sentimendua azaltzen duen, arrotz izatearen eta gutxiengoaren parte izatearen sentimendua.

María Pilar Rodríguezek elkarrizketatuko du Leila Slimani.

Ganadora del premio Goncourt en 2016 con *Canción dulce*, sus últimos trabajos sitúan a Leila Slimani en lo más alto de las letras francesas. *El país de los otros* es el primer volumen de una trilogía que comienza en los años 50 en Marruecos y que se adentra en la historia de la abuela de Slimani, emigrante en un país superando la etapa colonial para construirse como estado independiente. Una historia personal e íntima y política e histórica a la vez, donde la autora refleja el sentimiento de vivir siempre en el país de los otros, el sentimiento de extrañeza, de minoría.

María Pilar Rodríguez entrevistará a Leila Slimani.

Laguntzailea / Colabora
***Institut français***

**Gonbidapena beharrezkoa. Ekitaldia baino 3 egun lehenago eska daitezke (gehienez 2) / Invitación necesaria. Se podrán solicitar 3 días antes del evento (máximo 2)*

*aietekulturetxea@donostia.eus*



© *Gallimard*

**15**

## *Nunca serás un verdadero Gondra*

***Borja Ortíz de Gondra***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Txani Rodríguez***

**ERNEST LLUCH K.E.**
**Areto Nagusia** / Sala principal
**19:00 ES**

Borja Ortíz de Gondra Espainiako antzerkigile garrantzitsuenetakoa da. 2013 eta 2014an Literatura Dramatikoko Sari Nazionalaren finalista eta 2018an Max Saria irabazi zuen Egile Onenaren kategorian *Los Gondra (una historia vasca)* lan arrakastatsuagatik. Antzezlan horrek jarraipena izan zuen *Los otros Gondra (relato vasco)* lanarekin (Lope de Vega saria). *Nunca serás un verdadero Gondra* bere lehen nobela da. Bertan, Gondra bilbotar familiaren historia eta sekretuetara hurbiltzen da, eta era berean, Euskal Herriko azken hamarkada gatazkatsuen erretratua egiten du.

Egilea Txani Rodríguez idazlearekin arituko da solasean.

Borja Ortíz de Gondra es uno de los dramaturgos españoles actuales más interesantes. Finalista del Premio Nacional de Literatura Dramática en 2013 y 2014, ganó en 2018 el Premio Max en la categoría de Mejor Autor con la exitosa *Los Gondra (una historia vasca)*. Este trabajo tuvo continuidad con *Los otros Gondra (relato vasco)*, que recibió el Premio Lope de Vega. *Nunca serás un verdadero Gondra* es su primera novela, y en ella vuelve a explorar los secretos y la historia de los Gondra, importante familia bilbaína que sirve de espejo de las últimas y convulsas décadas del País Vasco.

El autor conversará con la escritora Txani Rodríguez.

**Gonbidapena beharrezkoa. Ekitaldia baino 3 egun lehenago eska daitezke (gehienez 2) / Invitación necesaria. Se podrán solicitar 3 días antes del evento (máximo 2)*

*amarakulturetxea@donostia.eus*



© *Lisbeth Salas*

16

# *Miss Marte*

## ***Manuel Jabois***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Ylenia Benito***

**SAN JERÓNIMO ARETOA**
**Liburutegi Nagusia** / Biblioteca Central
**19:00 ES**

*Malaherba* eleberria argitaratu eta bi urtera, kazetari moduan ibilbide esanguratsua duen Manuel Jaboisek *Miss Marte* argitaratu du. Bertan, kazetaria batek hogeita bost urte lehenago gertatutakoari buruzko dokumentala filmatuko du Galiziako kostaldean. Gertakaria oraindik gogoan dutenak elkarrizketatuko ditu horretarako, guztien bizitza aldatu zuen egun baten kontakizuna berridatziz. Egiari buruzko gogoeta pausatua da *Miss Marte*. Zerbait gertatu zen egun hartan, zer gertatu zen galdera korapilatsuari egia errukitsua kontrajartzen dion istorioa. Jakin nahi ez izanaren memoriaren adibidea, hain zuzen ere egia direlako esan behar ez diren gauzena.

Dos años después de su primera novela en castellano, *Malaherba*, Manuel Jabois presenta *Miss Marte*. Una periodista se dispone a rodar un documental sobre el suceso ocurrido veinticinco años atrás en un pueblo de la costa gallega. Para ello, entrevista a todos los que aún lo recuerdan, reescribiendo el relato de un día que cambió la vida de todos. Una reflexión pausada sobre la verdad; una novela que, a la pregunta siempre complicada de qué pasó aquel día en que pasó algo, opone la noción de «la verdad piadosa». Esa memoria del no querer saber, de las cosas que no se deben decir precisamente porque son ciertas.

****Gonbidapena beharrezkoa. Ekitaldia baino 3 egun lehenago eska daitezke (gehienez 2) /*** *Invitación necesaria. Se podrán solicitar 3 días antes del evento (máximo 2)*

*alderdiederliburutegia@donostia.eus*

*© Alfredo Arias*



## 16

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

# *Eraikuntzarako materiala*

***Eider Rodriguez***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Harkaitz Cano***

**ERNEST LLUCH K. E.**
**Areto Nagusia** / Sala principal
**19:00 EU**

Liburuak eraiki egiten dira, etxeak bezala, eta pertsonak ere eraiki egiten ditugu, nork bere ikuspuntutik, bere harreman partikularretik. Pertsona bera pertsona ezberdina izan daiteke begiradaren edo momentuaren arabera. Eider Rodriguezen nobelak aita baten figuran arakatzen du alabaren ikuspuntutik.

Eider Rodriguezek Harkaitz Canorekin solasean aurkeztuko digu azken lana.

Los libros se construyen, como las casas, y las personas también las construimos, cada cual desde su punto de vista, desde su relación particular. Una misma persona puede ser una persona diferente según la mirada o el momento. La novela de Eider Rodriguez indaga en la figura de un padre desde el punto de vista de su hija.

Eider Rodriguez presentará su último trabajo en conversación con Harkaitz Cano.

**Edukiera bete arte / Hasta completar aforo*



17

# *La vida juega conmigo*

***David Grossman***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Yolanda Mendiola***

**ANTZOKI ZAHARRA** / TEATRO PRINCIPAL
**19:00 EN + EU + ES**

Itzulpena euskara eta gaztelaniara
Traducción a euskera y castellano

Munduko literaturaren idazle handienetako bat, Man Booker Prize sariaren irabazlea eta Nobel saririko hautagaia hainbat urtetan, David Grossmanek *La vida juega conmigo* argitaratu du. Maite duzunaren oroimena eta ohorea salbatu edo alaba txikia zortearen baitan utzi? Dilema horri aurre egin beharko dio Eva Panic kroaziarrak, Titoren Jugoslavia komunistaren lehen urteetan atxilotua izan ondoren. Kibutz batean bizi den familia berezi baten benetako istorioan oinarrituta, *La vida juega conmigo* kontakizun gogorra da, non intolerantziak eta sekretu izugarri batek Panicen familiaren zenbait belaunaldi baldintzatzen dituen. *La vida juega conmigo*, Grossman beraren historia da.
Lan honetaz eta bere ibilbideaz arituko da Grossman Yolanda Mendiolarekin solasean.

Una de las grandes voces de la literatura mundial, ganador del Man Booker Prize y firme candidato al premio Nobel en varias ocasiones, David Grossman, cuenta su propia historia en *La vida juega conmigo*. ¿Salvar la memoria y el honor del amor de tu vida o dejar a la suerte a tu hija pequeña? A ese dilema se enfrenta la croata Eva Panic al ser detenida en los primeros años de la Yugoslavia comunista de Tito. Basado en una historia real de una familia singular en un kibutz, *La vida juega conmigo* es un relato duro en el que la intolerancia y un terrible secreto condicionan a la familia de Panic por varias generaciones. El autor conversará sobre este trabajo y su dilatada trayectoria con Yolanda Mendiola.

***Gonbidapenak Antzoki Zaharreko eta Victoria Eugeniako leihatiletan banatuko dira, astelehena 15etik aurrera dagozkien ordutegitan** / Las invitaciónes se podrán recoger en las taquillas del Teatro Principal y Teatro Victoria Eugenia en sus horarios correspondientes a partir del lunes 15*

*© Michael Lionstar*



**17**

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

## *Izurdeen aurreko bizitza*

***Kirmen Uribe***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Mari Jose Olaziregi***

**19:00 EU** On line

Euskal kondaira zahar baten arabera, izurdeak, garai batean, pertsonak izan ziren. Izurde bilakatu ziren laminen maitale izatearren. Behin urrats hori emanda, ez zegoen atzera egiterik. Migrariari ere goitik behera aldatzen zaio bizitza herrialdez aldatzen duenean. Aldatzen zaio bizitza, eta baita ere, iraganarekin duen harremana. *Izurdeen aurreko bizitza* eleberriak hiru hari narratibo ditu. Lehena, Kirmen Uribe berak New Yorkeko liburutegian egiten duen ikerketa Rosika Schwimmer sufragistari buruz. Bigarrena, idazlearen eta haren familiaren bizitza New Yorken 2018 eta 2021 urteen bitartean (Trump-en agintaldiaren bukaera zalapartatsua eta pandemiaren testuinguruan), eta hirugarrena, idazlearen haurtzaroa 80ko hamarkadan emakume iraultzaileen familia batean. Fikzioaren eta ez fikzioaren mugetan mugitzen den nobela, generoari berari definizio berri bat eman nahian.

Según una antigua leyenda vasca, los delfines fueron en otro tiempo personas. Se convirtieron en delfines para ser amantes de las lamias. Una vez dado ese paso, no había marcha atrás. Al migrante también le cambia la vida por completo cuando cambia de país. Le cambia la vida, y también, su relación con el pasado.
La novela *Izurdeen aurreko bizitza* tiene tres hilos narrativos. El primero, la investigación que el propio Kirmen Uribe realiza en la biblioteca neoyorquina sobre la sufragista Rosika Schwimmer. El segundo, la vida del escritor y su familia en Nueva York entre 2018 y 2021 (en el contexto del tumultuoso mandato de Trump y de la pandemia), y el tercero, la infancia del escritor en una familia de mujeres revolucionarias en los años 80. Una novela que se mueve en los límites de la ficción y no ficción, tratando de dar una nueva definición al propio género.

**Informazio gehiago / Mas información*
*www.literaktum.eus*



**18**

## *Cuaderno de memorias coloniales*

***Isabela Figueiredo***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Ander Izagirre***

**SAN TELMO MUSEOA**
**19:00 POR + EU +ES**

Itzulpena euskara eta gaztelaniara
Traducción a euskera y castellano

Mozambike, 1970eko hamarkadaren hasiera. Guraso portugaldarrak dituen neska bat helduen mundua ezagutzen hasi eta inguruko bidegabekerien lekuko da. Isabela Figueiredok, memoria bikain hauetan, Lourenço Marquesen, gaur egungo Maputon, haurtzarotik nerabezarora igarotako denbora kontatzen du, baita aitarekin izandako harreman konplexua eta deskolonizazio garai gorabeheratsuan Portugalera itzuli izana ere. Egileak indarkeria eta arrazakeria basati eta normalizatua azaleratzen ditu lanean eta Portugalera bueltan "itzulitakoa" izanaren zama. Bere lekukotasun-balioa gainditzen duen lan bat, beste ezeren gainetik, aitarenganako maitasun zurrunbilotsu eta suntsiezinari buruzko gogoeta ederra.



Ander Izagirre kazetari eta idazleak elkarrizketatuko du Isabela Figueiredo.

Mozambique, a principios de los años setenta. Una niña de padres portugueses empieza a descubrir el mundo de los adultos mientras es testigo de las injusticias que la rodean. Isabela Figueiredo relata en estas excepcionales memorias su paso de la infancia a la adolescencia en Lourenço Marques, actual Maputo, la compleja relación con su padre y su marcha a Portugal durante la convulsa etapa de descolonización. La autora revela sin tapujos la violencia y el racismo feroz y normalizado y, ya en Portugal, el peso que le supondría su condición de «retornada». Una obra que trasciende su valor testimonial para constituir, por encima de todo, una hermosa reflexión sobre el amor filial, turbulento e indestructible.

El periodista y escritor Ander Izagirre entrevistará a Isabela Figueiredo.

**Edukiera bete arte / Hasta completar aforo*

*www.santelmomuseoa.eus*

**19**

## *Independencia*

***Javier Cercas***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Mitxel Ezquiaga***

**OKENDO K.E.**
**Areto Nagusia** / Sala principal
**19:00 ES**

Nola egin aurre itzalean boterea erabiltzen dutenei? Nola mendeku hartu kalte gehien egin dizutenez? Meltxor Marín eskuadra-mossoa itzuli da. Bartzelonara itzuli da eta han kasu korapilotsu bat ikertzeko eskatu diote: norbait hiriko alkateari xantaia egiten ari zaio sexu-bideo batekin. 2019an *Terra Alta*rekin Planeta Saria irabazi ondoren, Javier Cercasek Melchor Marín eskuadra-mossoa berreskuratu du Bartzelonako politika eta ekonomia arloaren erretratu suntsigarria egin eta batez ere, diruaren jabeen eta munduko nagusien tiraniaren aurka sutsuki joateko.

Mitxel Ezquiaga kazetariak elkarrizketatuko du Javier Cercas.

¿Cómo enfrentarse a quienes manejan el poder en las sombras? ¿Cómo vengarse de quienes más daño te han hecho? Vuelve el mosso de escuadra Melchor Marín. Y vuelve a Barcelona, donde es reclamado para investigar un caso vidrioso: están chantajeando con un vídeo sexual a la alcaldesa de la ciudad. Después de ganar el Premio Planeta en 2019 con *Terra Alta*, Javier Cercas regresa con el mosso de escuadra Melchor Marín para configurar un retrato demoledor de la élite político-económica barcelonesa, pero sobre todo en un furioso alegato contra la tiranía de los dueños del dinero y los amos del mundo.

El periodista Mitxel Ezquiaga entrevistará a Javier Cercas.

**Gonbidapena beharrezkoa. Ekitaldia baino 3 egun lehenago eska daitezke (gehienez 2) / Invitación necesaria. Se podrán solicitar 3 días antes del evento (máximo 2)*

*okendokulturetxea@donostia.eus*

*© Arduino Vannucchi*



# **Jarduera bereziak**
# Actividades especiales



# INSTALAZIOA
# INSTALACIÓN

**5, 6, 7 & 12, 13, 14**

## *Lauki Makala*

***Ainhoa Juaristi & Martina Illarregui***

Kolaboratzailea / Colabora
***Donostiako Udalaren Gazteria Saila***

**ERNEST LLUCH K.E.**
**Erakusketa aretoa** / Sala de exposiciones
**16:00 - 20:00 EU**

Lauki Makala instalazio artistiko bat da. Hitza da bere mamia, formatu ezberdinetan, proiekzio animatu gisa landuko dena. Irudia, soinua eta espazioa dira elementu nagusiak, hirurak aldagarriak, bisitariaren jokaeraren arabera, elkar-eragineko murgilketa esperientzia bat eskaintzen dutenak.

Lauki Makala Ainhoa Juaristi eta Martina Illarreguiren proiektua da eta Donostiako Udalaren Gazteria Sailak bultzatutako MartxUp! Sorkuntza programaren babesa jaso du.

Lauki Makala es una instalación artística cuyo núcleo es la palabra, tratada en diversos formatos de proyecciones animadas. Sus elementos esenciales son la imagen, el sonido y el espacio. Los tres son cambiantes, ya que responden al comportamiento de las personas visitantes para ofrecer una experiencia interactiva e inmersiva.

Lauki Makala es un proyecto de Ainhoa Juaristi y Martina Illarregui y ha sido seleccionado por el programa de ayuda a la creación MartxUp! del Departamento de Juventud del Ayuntamiento de San Sebastián.

# LITERATUR IKASTAROA
CURSO DE LITERATURA

**8 – 29**

## *Escribe tu historia personal*

***Ana Merino***

OKENDO K.E.
**11:00 - 12:30 ES**

95€

